

KARLISMOAREN MUSEOA EKIPAMENDU BERRIA DA ETA ONDOKO HELBURUAK DITU: KARLISMOA IRIZPIDE ZIENTIFIKOEKIN IKERTZEA, HAREN HISTORIA EZAGUTARAZI ETA ONDAREA BERRESKURATZEA

Museoa

Gobernadorearen Jauregia deitutako XVII. mendeko eraikinean jarri da museoa.

Bertan hauxe eskaintzen da:

- ◆ lehenbiziko solairuan, erakusketa iraunkorra, karlismoaren historiari buruzkoa, hori baita museoaren muina.
- ◆ beheko solairuan, aldi baterako erakusketen programa, karlismoaren aspektu jakinen batean edo karlismoarekin zerikusia edo lotura duen gairen bati buruzkoa. Erakusketa horiek iraupen luzekoak izanen dira (urtean bat eginen da, Aste Santutik abendura bitarte).
- ◆ eta, sotoan, eraikinaren historiari eta zaharberritze-lanei buruzko erakusketa grafiko bat.

Karlismoaren Museoa, 2006. urteaz geroztik, batzorde zientifiko bat du, historialari hauek osatua: Juan Pablo Fusi, Madrilgo Universidad Complutenseko Historia Garaikideko katedraduna; Ángel García Sanz, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Historia Garaikideko irakasle titularrak; Jordi Canal, Parisko *l'École des Hautes Études de Sciences Sociales*eko *maître de Conférences* izeneko kargua duena; eta José Ramón Urquijo, Ikerketa Zientifikoetako Goi Kontseiluko ikerlanetako irakaslea. Museorako gidoi historikoa egitea eta Karlismoa Ikertzeko Jardunaldiak antolatzea izan dituzte eginkizun.

2000. urtean Euskal Herriko Karlista Alderdiak (EKA) mugarik gabeko gordailu gisara utzi zion Nafarroako Gobernuari bere ondare historikoa osatzen duten ondasunen multzoa: banderak, uniformeak, sariak, margolanak, argazkiak... Gordailu horretako gauzekin batera, museoak Nafarroako Gobernuaren bestelako kultur ondasunak ditu erakusgai, haietako asko museo honetarako erosiak, eta beste batzuk zenbait erakundek eta pertsonak utziak.

Karlismoaren Museoa 2007. urtean hasi zen programa publikoekin, orduan Karlis-

moa ikertzeko I. Jardunaldia egin baitzen. Ondotik, beste bi egin dira 2008an eta 2009an. Lehenbiziko eta bigarren jardunaldien aktak argitaratuak daude. Hirugarren jardunaldiena, berriz, argitaratzeko bidean dago. 2010eko irailean IV. Jardunaldiak eginen dira. Hauxe dute izenburua: "Por Dios, por la Patria y el Rey": karlismoaren ideiak.

Eraikina

Jauregi hau Rua kalean (Donejakue bidearen kalean) eraiki zen 1608tik 1613ra bitartean eta eskualde honetan arruntak ez diren ezaugarri arkitektonikoak ditu.

Juan Etxabarri Larrainek eraikiarazi zuen. Juan Etxabarri XIV. mendetik aurrera Nafarroako monarkiarekin lotura handia izandako familia batekoa zen, XVI. eta XVII. mendeetan boteretsu bihurtuko zen familia batekoa. Lizarraldean eta Austriarren gortean bizi izan zen. Eraikinaren proiektua zeinena den ez dakigun arren, badirudi Juan Gómez de Morarena izan daitekeela, dituen ezaugarri formalengatik eta Juan Etxabarriren eta Lermako dukearen arteko harreman

estuarengatik, horrentzat lan egin baitzuen Gómez de Morak.

Eraikinean aipatzekoak dira proportzio bikainak eta arkitekturaren konposizio orekatsua, zein fatxadan, zein barranean. Bi pisuko patio dotore baten inguruan antolatua dago; patioaren alde bakoitzak hiru arku ditu, eta horien euskarri zutabe doriarrak. Fatxadan hiru armari daude: erdikoan Juan Etxabarriren armak; horren eskuinekoan haren semearenak eta ezkerrekoan, bigarren emazte Felipa Enríquez de Cisneros Albornozenak, gainean koroa bat dutela, erregearen familiaren ahaidea baitzen.

Haren oinordekoek gorde zuten eraikinaren jabe goa 1880 arte. Urte horretan beste batzuen esketara igaro zen. 2000. urtean hiriko Udalak erosi zuen eraikina, auri egogearan zegoena, eta Nafarroako Gobernuari laga zion, Karlismoaren Museoa jar zezan.

Zaharberritzeari esker arkitektura-balioa eta jatorrizko itxura berreskuratu ditu, hondatua baitzegoen zaharra izateagatik, batetik, eta izan zituen erabilerengatik (larru-lehortegia eta mekanika lantegia, besteak beste), bestetik.



ORDUTEGIA

Asteartetik larunbatera,
10-14 ate 16-19 h

Igande eta jaiegunetan,
11-14 h

Astelehenetan itxia

Itxita urtarrilaren 1ean, herriko
jaietan eta abenduaren 25ean

JARDUERAK

Bisita gidatuak
Ikastetxeentzako jarduera
pedagogikoak
Karlismoa ikertzeko
jardunaldiak

TARIFAK

Tarifa arrunta: 2€

% 50eko deskontua,
honakoren bat kreditatu
ondoren: gazte txartelaren
titularrak; ikasle txartelaren
titularrak; hezkuntza edo
kultur erakundeekin lotutako
taldeak, aurretik bisita
eskatuta.

Dohainik, honakoren bat
kreditatu ondoren:
adingabeak, 65 urtetik
gorakoak eta erretiratuak,
ICOMeko kideak, langabeak
(EINeko txartela), ikastetxeko
zuzendaritzaren egiaztagiria
duten irakasleak, eta
Donejakue bideko erromesak.

ARGIBIDEAK

Rua 27-29
31200 Estella-Lizarrak. Nafarroa
Telefona: 948 552 111
www.museodelcarlismo.navarra.es

ERAKUSKETA IRAUNKORRAK KARLISMOAREN HISTORIAREN ZORTZI SAIL BILTZEN DITU, JAIO ZENETIK 1939A ARTE. HORIETATIK ZAZPI KRONOLOGIKOAK DIRA

Estella-Lizarra • Nafarroa

Karlismoa, mugimendu historikoa

Europar eta Ipar Amerikan aldaketa politiko eta sozialak handiak (iraultza) gertatu ziren XVIII. mendearen bigarren erdialdean. Baina, gizarte guztia ez zegoen aldaketa horien alde. Beraz, aipatu mendearen bukaran eta XIX.enean mugimendu kontrairaultzaile indartsua sortu zen. Horretan dago sartua karlismoa. Bi-biek dituzte antzeko ezaugarriak: legitimismoa, erlijioaren babesa eta arrazionalismo iraultzaileari dioten arbuioa. Baina karlismoak berezitasun bat dauka: luze iraun zuela. Egokitzeko zuen gaitasunak jarraitzeko aukera eman zion, gainerako mugimendu kontrairaultzaileak XIX. mendearen bigarren erdialdean deuseztatu baziren ere.

Erregimen Zaharraren krisia eta karlismoaren sorrera

1808an gudaroste frantsesen kontrako altxamendua gertatu zen, Fernando VII.a tronutik kenduaren alde eta erlijioaren alde, nonbait arriskuan. Atzerritarraren kontrako erantzuna ere izan zen, eta horrek izaera nazionala eman zion Independentziaren Gerrari. Gerra bukatuta, beraz, absolutismoa atera zen garaile. Fernando VII.ak 1820ko iraultzari eta ondoko altxamendu armatu liberalari egin behar izan zien aurre, baita azken urteetako altxamendu absolutista ultrei ere. Borroka giro horretan —etengabea Independentziaren Gerraz geroztik—, gatazka juridikoa ere izan zen: nork zuen tronurako eskubidea? Fernando VII.aren anaiak, Carlos M^a Isidro de Borbón infanteak, edo erregearen alabak, hau da, Isabel printzesak.

Lehenbiziko gerra karlista, gerren arteko garaia eta bigarren gerra karlista

Garai honetan guztian gertatutakoak xehe-tasunez azalduak daude mapen eta programa interaktiboan bitartez. Garai horretarako dira museoan erakusten diren gauzetako asko, banderak (besteak beste, Bandera Na-

gusia) eta uniformeak esaterako. Haien ondoan, **gerren artea** izenburuaz, bi gerretako eszenak dituzten margolanak daude ikusgai, Van Halenek, Benlliurek, Estevanek, Cusachsek eta Salaberriak eginak.

Karlismoa XIX. eta XX. mendeen artean 1874an, borboiak berriz ere boterera iritsita, Isabel II.aren seme Alfonso XII.a, eta bigarren gerra bukatuak (1876), aldaketa aroa hasi zen karlismoarentzat. 1833an hasitako gerren zikloa itxi zen, eta horrek egokitzera behartu zuen alderdia (Komunioa), adierazpide nagusia gerra ez zen garaia hasi baitzen.

Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila

Bigarren Errepublikaren aldarrikapenaren ondoren, karlismoa, berriz, iraultzaren kontrako zenbait indarren erakarmen-gune bihurtu zen. 1936an karlistak altxamendu militarri lotu zitzaizkion. Erreketean oinezko erregimentuak buru-belarri aritu ziren Gerra Zibilean. Gerra hori XIX. mendeko gerren bukarra izan zen karlistentzat. Hainbeste gudu galdu ondoren, azkenean irabazleek taldean zeuden. Baina bidean asko galdu zuten.

.....

Erakusketa iraunkorarekin loturik, eta soilairu berean, Nafarroan karlismoarentzat interesa duten ibilbide batzuei buruzko informazio gunea dago: Errege-nahien bidea, bataila leku nagusiak eta liberalen defentsa.

Erakusketa honen museografia-lana Tiquitoc Producciones enpresari esleitu zitzaion, eta enpresak Pedro Rújula izan du aholkulari (Zaragozako Unibertsitateko Historia Garaikideko irakasle titularra). KEN, bestetik, eraikinaren historiari buruzko gelako erakusketaz arduratu da, hau da, sotoaz.



Goian: Lehen gerra karlistako gudua. Francisco de Paula Van Halen y Maffei (Vic, 1810-Madril, 1887). Oihal gaineko oliopintura, 1841.
Erdialdean: Karlos V.aren armadaren Bandera Nagusia, 1833. Alderdi Karlista-EK.aren gordailua.
Ezkerrean: Karlos VII.aren zigilua, 1873.
Behean, ezkerrean: Karlos VII.aren 50 zentimoko zilarrezko txanpona. Bruselan irarria 1876an.

MUSEO
KARLISMOAREN
FOTOGRAFIA